

Poesiari utopian leku bat

Eva PEREZ-PONS ANDRADE

Bi mila eta berrogeita zortziko ekainaren seia, zapatua. Laurogei lagun inguru batu gara Arabako herri txiki bateko etxe okupatu baten urteurrenaren bueltan. Egitaraua oparoa da; kalejira herrikoia, poesia-errezitaldi irekia, bazkaria, mahai-ingurua eta kontzertuak. Antolatzaileek urteurrena gai batekin lotzea erabaki dute aurten, eta mezua zabaltzeko, hainbat formatu eta adierazpen artistiko aukeratu.

Azken urteotan, poesiari lekua egin zaio espazio autogestionatuetan, eta izaten ari den harrera positiboa da. Hasierako bertigoa nabaria zen. Nori interesatzen zaio poesia? Nork egiten du poesia? Norentzat? Non? Zein da poesiaren ahotsa? Zein toki du gorputzak? Genituen erreferente handiekin eta tradizioz zamatzen genuen poesia-formatu zurrunarekin, zaila egiten zitzaigun gure ahotsa, asmoa eta irudia galdera horien erantzunetan zilegitasun minimo batekin topatzea, baina, hala ere, froga egin genuen. Argi genuen gure berdinekin eta gure espazioetan egin nahi genuela poesia, euskal poesia, baina gune horietan ez zegoen ohitura poetiko hertsirik, eta bidea egin behar izan genuen. Eta hara sorpresa: euskal poesia ez dago soilik Gipuzkoan, aretoetan edo udaletxeetako programeetan. Herri mugimenduak hartu du beso zabalik, eta gaztetxeetako eta gune autogestionatuetako eszenatoki eta lorategi xumeetara heldu da luzaro geratzeko.

Poesiak ez du ahots bakarra. Irmoa da, baina baita ere traketsa, trabatzen den ahotsa, ez da ahots antzeztua eta aldi berean bai. Poemaren parte da poetaren urduritasuna, eta poetaren ahotsean identifikatzen ditu entzuleak bere urduritasun propioak. Enpatia eta deserosotasunak eragiten ditu neurri berean poesiak, eta intentsitateak sortu eta mugitu bere erritmo anitzetan; punkia, zuzena, motela edo katartikoa da. Poesia entzuten, ikusten, irakurtzen eta sentitzen da, begiak itxita zein zabalik. Infusio, zuku, garagardo zein ardo kopa bat eskuan gozatzen da poesia.

Poesia lizuna eta politikoa da, mundua zapartatzeko bide eta gotorleku. Gutasunaren beste espresio forma bat. Poetaren ahotsean aurkitzen du bere burua poesiarekin lotura handirik ez duen norbanakoak, emozio-natu egiten du haren bizipenak eta gatazkak beste batenak diren hitzetan topatzean. Lerro hautsira erakartzen du poesiak lerro hautsia ezagutzen ez zuen iguala.

Poesia transa da. Norma gainditu du. Ez dago gorputzik poesia deskribatzen duenik gorputz guztiak direlako poesia. Kontraesanean ehuntzen da poesia.

Langile klaseko maketo zaharren biloba euskaldun berriok eta poesiaren bastardook akatu ditugu poesiaren aitak. Ezagutzen ez ditugun gizon helduek jada ez digute esaten zelan irakurri behar ditugun gure poemak eta poeta gizon modernoek iraungitzeaz dagoen moda bat garela esateari utzi diote. Ez dira ausartzen. Poesia geure egin dugu, bazterreko elitismo sotil eta patriarkaletik askatu dugu.